

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2752

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie itunpeko ikastetxe pribatuei ituntzeko unitateak zehaztu ditzaten Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan, 2018-2019 ikasturterako.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko Aginduak dei egiten du 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta berriak izenpetzeko.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena), VI. kapituluan, berariazko hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzako aniztasun-neurriak ezartzen ditu. Zehazki, hezkuntza-premia bereziak dituztelako pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleak behar dituzten ikasleak aipatzen ditu 37. artikuluan; 39. artikuluan, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak, eta, curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak 40.ean.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legean aurreikusten da itunpeko ikastetxeak mantentzeko ekonomia-moduluen arabera finantzatzea Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekia, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak.

Agindu honen bidez dei egiten zaie indarreko hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuei ituntzeko unitateak zehaztu ditzaten Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan, 2018-2019 ikasturterako.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta hartzaileak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten zaie eska ditzaten ituntzeko unitateak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan, 2018-2019 ikasturterako.

2.– Irakaskuntza hauek emateko unitate baimendu eta itunduak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuek eskatu ahal izango dituzte ituntzeko unitateak:

a) Lehen Hezkuntza, lehen hezkuntza berezi irekiko unitateak eskatzeko.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, bigarren hezkuntza berezi irekiko unitateak, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak eskatzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarriko du gehienez zenbat funts publiko bideratuko den unitate hauetara.

2. artikulua.– Betekizun orokorrak.

1.– Hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan ezarritako itun-araubidearen berezko betekizunak bete beharko dituzte ikastetxeek.

2.– Lehen Hezkuntza berezi irekian eta Bigarren Hezkuntza berezi irekian itundu beharreko unitateek alde aurretik baimenduta egon beharko dute indarreko legeriarekin bat etorri.

3.– Ikastetxeek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Organo kudeatzaileak behar adina aldiz egiaztatuko du itunak eskatu dituzten ikastetxeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, eta ez du horretarako haien baimenik eskuratu beharko.

4.– Ikastetxeek bermatuko dute betetzen dela Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluan 5. zenbakian xedatua, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarria.

3. artikulua.– Betekizun espezifikoak.

1.– Ikasgela irekiko unitate bat itunduko badu, ikastetxeak honako betekizun hauek bete beharko ditu, etaparen eta ikasle hartzaileen arabera:

a) Lehen Hezkuntzan, honako baldintza hauetakoren bat:

- Desgaitasunei edo jokabidearen nahasmendu larriei lotutako hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak (4-6 bitartean) eskolatzea, zeinek, HPBko aholkularitzaren balorazioaren arabera, honakoa eskatzen baitute: banakako jarduketa-plan bat eta pedagogia terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin, zabalarekin edo orokortuarekin.

- Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak (HLBP) dituzten ikasleak (8-10 bitartean) eskolatzea; hauei lotuta egonik: heltze-atzerapena, mugako gaitasun intelektuala, nahasmendua arreta defizitarekin (hiperaktibitatearekin ala gabe), diskalkulia, irakurketa-nahasmendua edo dislexia, edo hizkuntzako nahasmendu espezifikoa, zeinek, HPBko aholkularitzaren balorazioaren arabera, eskatzen baitute: banakako jarduketa-plan bat eta pedagogia terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin.

b) Bigarren Hezkuntzan, honako baldintza hauetakoren bat:

- Desgaitasunei edo jokabidearen nahasmendu larriei lotutako hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak (4 edo 5) eskolatzea, zeinek, HPBko aholkularitzaren balorazioaren arabera, honakoa eskatzen baitute: banakako jarduketa-plan bat eta pedagogia terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin, zabalarekin edo orokortuarekin.

- Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak (HLBP) dituzten ikasleak (8 eta 10 bitartean) eskolatzea; hauei lotuta egonik: heltze-atzerapena, mugako gaitasun intelektuala, nahasmendua arreta defizitarekin (hiperaktibitatearekin ala gabe), diskalkulia, irakurketa-nahasmendua edo dislexia, edo hizkuntzako nahasmendu espezifikoa, zeinek, HPBko aholkularitzaren balorazioaren arabera, eskatzen baitute: banakako jarduketa-plan bat eta pedagogia terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin.

2.– Hezkuntza indartzeko proiektuetan unitate bat ituntzeko, baldintza hauek bete beharko ditu aldi berean ikastetxeak:

a) DBHko lehen edo bigarren mailako 13 edo 14 urteko –eta salbuespenez 15 urteko– ikasleak eskolatuta edukitzea (gutxienez 8 eta gehienez 15), eta horiek hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) edukitzea ahulezia-egoeran dagoen gizarte- edo kultura-ingurune bateko kide direlako, edo eskolara egokitzeko arazo larriak edo eskola-porrota edukitzeagatik.

b) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren oniritzia izatea ikastetxeko zuzendaritzak proposatutako hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak.

c) Hezkuntza berariaz indartzeko proiektua aurkeztea deialdi honen 4. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera.

3.– Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan unitate bat ituntzeko, ikastetxeak honako baldintza hauek bete beharko ditu ikasleen adinaren eta programaren iraupenaren arabera:

DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasleen % 15 baino gehiago ez proposatzea curriculum-aniztasunerako. Bi talde baino gehiago ituntzea eskatuz gero, ikastetxean 300 ikasle baino gehiago egon beharko dira DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulaturik.

Gainera, programaren iraupenaren arabera:

- Programa bi ikasturtetarako bada, DBHko 3. mailan 15 edo 16 urteko ikasleak eskolatuta edukitzea (gutxienez 8 eta gehienez 15), eta horiek baldintza hauek betetzea:

- Oinarrizko Hezkuntzan mailaren bat errepikatzea.

- 2017-2018ko ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren, DBHko 1. eta 2. mailetako gehienez lau ikasgai gainditu gabe edukitzea.

- DBHko 3. mailara igarotzeko baldintzak ez betetzea.

- Programa ikasturte bakarrerako bada, DBHko 4. mailan 16 edo 17 urteko ikasleak eskolatuta edukitzea (gutxienez 8 eta gehienez 15), eta horiek baldintza hauek betetzea:

- Oinarrizko Hezkuntzan mailaren bat errepikatzea.

- 2017-2018ko ikasturteko aparteko deialdiaren ondoren, DBHko 1., 2. eta 3. mailetako gehienez lau ikasgai gainditu gabe edukitzea.

- DBHko 4. mailara igarotzeko baldintzak ez betetzea.

Ikasturte bateko programan curriculum-aniztasunerako programa jada egin duten 18 urteko ikasleak jaso ahal izango dira, baldin eta Graduatu titulurako proposatu ez badituzte.

4.– Artikulu honetan adierazitako adin-eskakizuna betetzeko, ikasleak 2018ko abenduaren 31n duen adina hartuko da kontuan.

4. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak eta jarraibideak hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak garatzeko.

1.– Hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan unitateak ituntzea lortzen duten ikastetxeek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- Ikastetxeko Urteko Planean hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak sartzea.
- Programaren jarraipenean laguntzea eta Berritzeguneek antolatutako jardueretan parte hartzea.
- Ikastetxeak programaren garapena azaltzen duen memoria egingo du ikasturtearen amaieran, eta ikastetxeko urteko memorian txertatuko du hori, eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora bidaliko du: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/hezkuntza_inklusiboa/y22-izapide/eu
- Programan sartu diren ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei informazioa emateko eta entzuteko konpromisoa hartuko du ikastetxeko zuzendaritzak.

2.– Hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan unitateak ituntzea eskatzen duten ikastetxeek honako jarraibide hauek bete beharko dituzte proiektua garatzean:

- Eskola inklusiboko planteamendu baten barruan garatzea proiektua, ikastetxeko ikasleen aniztasunari globaltasunez eta batera erantzunda, eta itxaropen handiak sortzea hartzaile diren ikasleengan.
- Programaren jarduketak, baita ohiko eta ezohiko baliabideak ere, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratzea, programaren hartzaile diren ikasleei arreta berezia emanez.
- Metodologia aktiboak eta estrategia inklusiboak erabiltzea, hala nola taldeko irakasle kopurua murriztea, hau da, irakasle bakoitzak ikasgai bat baino gehiago ematea; bi irakasle ikasgelan; talde interaktiboetan lan egitea; solasaldi dialogikoak; tutoretzadun liburutegia; ikaskuntzaren elkarlaneko antolaketa; IKTak erabiltzea ikaskuntzak aberasteko... Horrelako estrategiek ez dute inola ere eragingo programako ikasleentzat taldeak eta saioak berariaz sortzea, hizkuntzetako komunikazioa lantzeko banaketa heterogeneoei dagokienez izan ezik.
- Proiektuaren hartzaile diren ikasleei talde naturalaren barruan banakako arreta emateko neurriak antolatzea (banakako tutoretzak, berdinkideen arteko tutoretzak, kontratu pedagogikoak, ikasle enbaxadoreak, babesak, berbalagunak...).
- Irakasle guztien arteko koordinazioa bermatzea, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren xede diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.
- Senideen harremana eta parte-hartzea lantzea, eta haien prestakuntza ahalbidetzea, eta ikasleekin elkarrekintzan dauden inguruko eragileekin ere koordinazioa sustatzea.
- Irakasleen barneko prestakuntza antolatzea (tutoreak, ikasketa-buruak, orientazioa...).
- Proiektuan berariaz jasotzea II-B eranskinean jasotako atalak.

3.– Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan unitateak ituntzea lortzen duten ikastetxeek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- Programako kide bakoitzarentzat oinarrizko programa eta banakako programa egitea. Dokumentu horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egongo dira 2018ko urria amaitu aurretik.

- Banakako plana egitea, non irakasleek oinarrizko edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko baitituzte. Irakasleak oinarrizko gaitasunak eskuratu ditzan irakasleek beharrezko jotzen dituzten oharrekin osatu egingo da programa hori ikasturtean zehar.

- Programaren garapena azaltzen duen memoria egitea ikasturtearen amaieran, eta ikastetxeko urteko memorian txertatuko du hori.

- Programan sartu diren ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei informazioa emateko eta entzuteko konpromisoa hartzen du ikastetxeko zuzendaritzak.

- Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 40.2 artikuluekin bat etorritik, ikastetxeak honako hau adierazten du: curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bati ekiteko onartutako ikasle guztiek ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa izan beharko dutela, eta programari ekin ahalko diotela gurasoei eta legezko tutoreei entzunda.

4.– Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan unitateak ituntzea lortzen duten ikastetxeek honako jarraibide hauek bete beharko dituzte curriculum-aniztasunaren oinarrizko eta berariazko programazioa egiteko orduan:

- Curriculum-aniztasunaren programa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzera bideratzea; horrenbestez, ebaluazioak Bigarren Hezkuntzaren oinarrizko gaitasunak eta helburuak izan beharko ditu funtsezko erreferentziatzat.

- Programaren hartzailerik diren ikasle guztiek jarraituko duten oinarrizko programa zehaztea; metodologia, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko ditu horrek, eta berariazko taldetan, eremuka, edo talde arruntetan, modu integratu batez, egin ahal izango da:

- Berariazko taldeak: programa horietako ikasleek, gutxienez ere, 23 ordu eskainiko dizkiete hizkuntzen eta gizartearen eta zientziaren eta teknologiaren arloei. Irakasle batek edo gehiagok emango dute arlo bakoitza; irakasle horietako batek ikasleen banakako tutoretza hartuko du bere gain, astean bi orduz gutxienez.

- Talde arruntak: proposamen integratuan, curriculumaren antolaketa eremuka, diziplinarteko proiektuak edota jakintza-arloak egin daitezke, eta curriculum-aniztasuneko ikasleek ikasgai guztiak talde arruntetan egingo dituzte. Ikastetxeko proposamenak ikasgelan sendotu beharreko ikasgaiak eta noiz egin zehaztuko du, baita irakasle-taldeko zein irakaslek hartuko duten banakako tutoretzen ardura ere.

- Taldeko ikasle bakoitzarentzat banakako programa egitea; horrek barnean hartuko ditu, besteak beste, ibilbide akademikoa pertsonala, eduki-egokitzapena eta dagozkion ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak. Curriculum-aniztasuneko ikasleak ebaluatu egin beharko dira ikasturte bakoitzaren amaieran, eta bi ikasturteko programetan nahitaezkoa izango da lehenengotik bigarrenera igotzea.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Hilabetekoa izango da 2018-2019 ikasturterako ituntzeko unitateen eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

6. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira Hezkuntza Saileko hezkuntza-itunen aplikazio informatikoaren bidez. Era berean, prozedura honetako gainerako izapideak aplikazio horren

bidez kontsultatu edo egingo dira, edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez: <https://www.euskadi.eus/y22-ediktu/eu>

Deialdi honetako eskabideen aurkezpenari eta gainerako izapideei buruzko argibideak eta erabili beharreko txantiloak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/hezkuntza_inklusiboa/y22-izapide/eu

2.– Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Hezkuntza bereziko ikasgela irekien unitateak ituntzeko eskabideetan, banakako planaren eta Pedagogia Terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntzaren hartzaile diren ikasleen zerrenda, V. eranskinaren arabera.

b) Hezkuntza berriaz indartzeko proiektuetan unitateak ituntzeko eskabideetan: konpromisoak izenpetzea, IIA eranskinaren arabera; ikasleei arreta emateko ikastetxeak proposatutako proiektua, IIB eranskinaren arabera; eta proiekturako proposatutako ikasleen zerrenda, IID eranskinaren arabera.

c) Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan unitateak ituntzeko eskabideetan: konpromisoak izenpetzea, IIIA eranskinaren arabera; eta programarako proposatutako ikasleen zerrenda IIIB eranskinaren arabera.

7. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzaren ardurapean dago Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, hezkuntza berriaz indartzeko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan agindu honetan aurreikusitako unitateak ituntzeko prozedura kudeatzea.

8. artikulua.– Eskabideak ebaluatzea.

Deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira ituntzeko eskabideak, eta unitate edo zerbitzu konprometituen txostenak helarazi beharko dira.

Hezkuntza indartzeko proiektuetarako ituntzeko ikastetxeak aukeratzeko, IIC eranskinean ezarritako baremoa aplikatuko da, eta proiektuaren balorazioan 35 puntutik gutxienez 18 lortzen ez duten ikastetxeak kanpoan geratuko dira.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak, aipatutako txostenetan oinarrituz eta agindu honen 3. eta 4. artikuluei jarraikiz, behin-behineko proposamen bat egingo du, eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak proposamen horren berri emango du, agindu honen 12. artikuluari dagokionez.

9. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/y22-ediktu/eu/>) jakinaraziko da ituntzeko behin-behineko proposamena, eta jakinarazi eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, organo kudeatzaileak aukera izango du posta elektronikoa bidez ikastetxeei jakinarazpena argitaratu dela abisatzeko. Abisu horrek ez du inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

Proposamen horren aurka, ikastetxeek, jakinarazten den egunetik hasita hamar eguneko epean, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Hezkuntza Saileko hezkuntza-itunen aplikazio informatikoaren bidez.

Ikastetxeek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebazpen-proposamena helaraziko dio Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari, eta zuzendari-tza horrek, berriro, txostena egingo du agindu honen 12. artikuluari dagokionez.

Era berean, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak Hezkuntzako sailburuari helaraziko dio ebazpen-proposamena.

10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak ebatziko du deialdia agindu baten bidez, non zehaztuko baitu ikastetxe bakoitzerako itundu beharreko Lehen eta Bigarren Hezkuntza berezi irekiko unitate kopurua, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak eta curriculum-aniztasuna, 2018-2019 ikasturterako, aplikatu beharreko modulua eta zenbatekoa.

2.– Deialdi hau sei hilabeteko epean ebatziko da, agindu honetako 5. artikuluan aipatzen diren eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da.

11. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Ikastetxeek, 2018ko urriaren 31 baino lehenago, Hezkuntza Ikuskaritzari eta eskualdeko Berritzeguneari bidaliko die hezkuntza berariaz indartzeko proiektuen eta ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programen hartzaile izango diren ikasleen behin betiko zerrenda, IV. eranskinaren arabera. Eranskin hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/hezkuntza_inklusiboa/y22-izapide/eu

Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatu egingo du goian aipatutako programetarako proposatutako ikasleak bat datozen.

Eskualdeko Berritzegunea arduratuko da proiektuaren aholkularitzaz.

2.– Agindu honen bidez itunduko diren unitateek deialdi honetan jasotako ikasle-ratioak bete beharko dituzte, eta ofiziozko aldaketa baten mende egongo dira.

12. artikulua.– Aurrekontu-kreditua.

1.– Ikasturtea bi aurrekontu-ekitaldiren kontura finantzatuko da, eta hezkuntza-itunak finantzatzeko aurrekontu-partidetan erabilgarri dauden kredituen arabera baimenduko da gastu hori.

2.– Itundu beharreko ikasgela kopurua zehazteko izapidea hasi aurretik, iraila-abendua aldiari dagokion gastua baimendu beharko da. Gastu hori, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura finantzatuko da, eta lege horretan itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoen arabera kalkulatu da.

3.– Halaber, urtarrila-abuztua aldiari dagokion gastua aurretiaz izapidetuko da 2019ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, gastu-espedituek aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioeko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz. Zenbatekoa onartzen den unean, aurrekontuen legeak 2019ko ekitaldirako adierazten dituen ekonomia-moduluei doituko zaie zenbateko hori.

13. artikulua.– Hezkuntza-itunak ordaintzea.

1.– Agindu honen bidez arautzen diren diru-laguntzen ordainketa aurretiaz egingo da, lau hilerik behin, ordainketa eskuordetua arautzen duen urriaren 15eko 289/1993 Dekretuaren arabera, ordainketa-mota horrek eragina duen etapetan.

2.– Ikastetxeek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak hezkuntza-itunen ordainketa jasotzeko.

3.– Laguntzen ikastetxe onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, eta horretarako ez du haien baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

14. artikulua.– Ez-betetzeak.

Onuradunak Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dagozkion legezko interesak gehituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian diru-sarrera eginez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegian bi hilabeteko epean, agindua aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 15a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

I. ERANSKINA

ESKABIDEA, 2018-2019 IKASTURTEAN, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA BEREZI IREKIAN, HEZKUNTZA BERARIAZ INDARTZEKO PROIEKTUETAN ETA CURRICULUM-ANIZTASUNEAN UNITATEAK ITUNTZEKO

IKASTETXEA:KODEA:

UDALERRIA:LURRALDEA:

MAILA		
	Ikasleak	Taldeak
Lehen Hezkuntza berezi irekia		
Bigarren Hezkuntza berezi irekia		
Hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak		
Hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak; erdia		
Curriculum-aniztasuna		

_____, 2018ko _____aren _____a

TITULARRA/ORDEZKARIA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

II A ERANSKINA

HEZKUNTZA BERARIAZ INDARTZEKO PROGRAMA

KONPROMISOAK IZENPETZEA

IKASTETXEA:KODEA:

UDALERRIA:LURRALDEA:

	Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, URTEA-HILABETEA-EGUNA(e)an bilduta, funtzionamendurako legez ezarritako baldintzak betez eta Hezkuntzako sailburuaren 2018ko -----aren --(e)ko Aginduko deialdian adierazitako betekizunen arabera, ontzat ematen du ikastetxeko zuzendaritzak proposatutako hezkuntza berariaz indartzeko proiektua, eta aurkeztutako proiektuan adierazitako jarduerak garatzeko behar diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, baita proiektua urteko planean sartzeko ere, baldin eta onartzen bada.
	Ikastetxeak programaren jarraipenean laguntzeko eta Berritzeguneek antolatutako jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.
	Programa emandako jarraibideak betez garatzeko konpromisoa hartzen du ikastetxeak
	Ikastetxeko zuzendaritzak informazioa eman die ikastetxe honek aurkezten duen hezkuntza berariaz indartzeko proiektua jasoko duten ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari ikasle horiek programan sartzeko arrazoiei buruz, baita lortu nahi diren helburuei eta gauzatuko diren jarduerari buruz ere.
	Erakunde eskatzaileak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazten du.

_____, 2018ko _____aren ____ a.

TITULARRA/ORDEZKARIA

II B ERANSKINA**HEZKUNTZA BERARIAZ INDARTZEKO PROGRAMA****PROIEKTU-PROPOSAMENA****1.– PROIEKTUAREN ORIENTABIDEAK BILTZEN DITUEN ESKU-HARTZE PROPOSAMENAREN SINTESIA:**

Ikastetxeak aniztasunari erantzuna ematen daraman ibilbidearen deskribapen laburra (azaldu bestelako ekintza inklusiboak).

Hezkuntzan berariaz indartzeko proiektuaren helburuak eta aniztasunaren arretarako planarekin duen lotura.

2.– ESKU-HARTZEAREN ANTOLAMENDUA

Zehaztu DBHko 1. eta 2. mailan guztira den gela kopurua, zein gelatan burutuko den proiektua eta gela bakoitzean proiektua justifikatzeko dagoen ikasle kopurua.

Zehaztu gela bakoitzean egingo den esku-hartzea:

- Landuko diren arloak, arlo bakoitzean burutuko diren berariazko jarduerak (lankidetzako ikaskuntza, proiektuak, IKTen aprobeitxamendua, berriketaldiak, berdinen arteko laguntza, gelako irakasle kopurua murriztea...) programa zuzenduta dagoen ikasleei erantzuna emateko, saio kopurua eta jarduera bakoitzeko irakasle arduraduna/k.
- Zein jardueratan esku-hartuko duen gelan irakasle batek baino gehiagok, eta ekintza bateratu hori aurrera nola eramango den.
- Irakasleen jarraipenera zuzendutako jarduerak (banakako tutoretzak, saio bereziak, erabilitako tresnak...).
- Irakasleen laguntzaz eskolako orduetatik kanpo prebentzioa berrindartzeko ordutegia luzatzera zuzendutako jarduerak (Bidelaguna, tutoretzadun liburutegiak, berriketaldirako tailerra, ikasteko estrategiak berritzeko tailerra, hizkuntza tailerra, Berbalaguna, ikasle enbaxadorea...).
- Familien parte-hartzea (gelan, prestakuntzan, batzordeetan, bestelako jardueretan...).
- Proiektuko irakasleen proiektuaren ekintzetan duten parte-hartzea.
- Ikasleak eta proiektua ebaluatzeko adierazleak.

II C ERANSKINA**HEZKUNTZA BERARIAZ INDARTZEKO PROIEKTUAK
PROIEKTU-PROPOSAMENAREN BAREMOA**

Ikastetxeak aukeratzeko, honako baremo hau aplikatuko da:

- a) Hezkuntza berariaz indartzeko proiektuaren balorazioa (IIB eranskina): 35 puntu gehienez.

Gutxienez 18 puntu lortzen ez dituzten ikastetxeak kanpoan geratuko dira.

- b) DBHko 1. eta 2. mailan bekadunak diren ikasleen portzentajea (P)

$P < 35$	0 puntu
$35 \leq P < 50$	Puntu 1
$50 \leq P < 60$	2 puntu
$60 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P < 80$	4 puntu
$80 \leq P$	5 puntu

- c) DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa: 5 puntu gehienez.

15 eta 20 artean	3 puntu
20 baino gehiago	5 puntu

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

II D ERANSKINA

HEZKUNTZA BERARIAZ INDARTZEKO PROGRAMA

HARTZAILE DIREN IKASLEEN ETA TALDEAREN IDENTIFIKAZIOA

IKASTETXEA:KODEA:

UDALERRIA:LURRALDEA:

Ikasle kopurua:	<input type="text"/>	Proiektua gauzatzeko behar diren ezohiko irakasleen kopurua:	<input type="text"/>
DBHko 1. mailan bekadunak diren ikasleen portzentajea	<input type="text"/>	DBHko 2. mailan bekadunak diren ikasleen portzentajea	<input type="text"/>
Ikasleen ratioa DBHko 1. mailan	<input type="text"/>	Ikasleen ratioa DBHko 2. mailan	<input type="text"/>

TALDE ZK.:

IZEN-ABIZENAK	Maila ¹	Jaiotza-urtea	Erreferentzia-maila	Hezkuntza-atzerapen larriko arloak
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				
11.				
12.				
13.				
14.				
15.				

1) 2018-2019 zer mailatan egongo diren matrikulatuta.

2) Helburuak gainditu dituzten azken zikloa.

3) Adierazi atzerapen larria arlo guztiei dagokien, edo arlo jakin batzuei.

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK

IZEN-ABIZENAK	NAN	EGOERA ADMINISTRATIBOA EDO LAN-EGOERA	ESPEZIALITATEA

_____, 2018ko _____aren _____ a.

TITULARRA/ORDEZKARIA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

III A ERANSKINA

CURRICULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMAK

KONPROMISOAK IZENPETZEA

IKASTETXEA:KODEA:

UDALERRIA:LURRALDEA:

TALDEA:	IKASTURTE 1EKOA	2 IKASTURTEKOA (1. urtea)	2 IKASTURTEKOA (2. urtea)
KOPURUA			

	Curriculum-aniztasuneko ikastaroa emateko proposatutako ikastetxeak programako kide bakoitzarentzat oinarrizko programa eta banakako programa egiteko konpromisoa hartzen du. Dokumentu horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egongo dira 2018ko urria amaitu aurretik.
	Ikastetxeak banakako plana egiteko konpromisoa hartzen du ikasle bakoitzeko; plan horretan irakasleek, printzipioz, oinarrizko edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte. Ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratu ditzan irakasleek beharrezko jotzen dituzten oharrekin osatu egingo da programa hori ikasturtean zehar.
	Proiekturako zehaztutako helburuetarako erabiliko ditu ikastetxeak jasotzen dituen baliabideak.
	Programa deialdian emandako jarraibideak betez garatzeko konpromisoa hartzen du ikastetxeak.
	Ikastetxeak programaren garapena azaltzen duen memoria egingo du ikasturtearen amaieran, eta ikastetxeko urteko memoria txertatuko du hori.
	Ikastetxeko zuzendaritzak gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi eta entzun die.
	Erakunde eskatzaileak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazi du.
	Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 40.2 artikulua araber, ikastetxeak honako hau adierazten du: curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bati ekiteko onartutako ikasle guztiek ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa izan beharko dutela, eta programari ekin ahalko diotela gurasoei eta legezko tutoreei entzunda.

_____, 2018ko _____aren _____ a.

TITULARRA/ORDEZKARIA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

III B ERANSKINA

CURRICULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMAK

IKASLEEN ZERRENDA

IKASTETXEA:KODEA:

UDALERRIA:LURRALDEA:

URTEBETEKO CURRICULUM-ANIZTASUNENKO PROGRAMARAKO
PROPOSATUTAKO IKASLEAK

	IZEN-ABIZENAK	Adina 2018-12- 31n	DBHn errepika- tutako maila	2017-2018an zer mailatan egon zen	DBHn zenbat utzi dituen gainditu gabe
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

**BI URTEKO CURRICULUM-ANIZTASUNEKO PROGRAMARAKO
PROPOSATUTAKO IKASLEAK**

	IZEN-ABIZENAK	Adina 2018/12/ 31n	Errepikatu- tako maila	2017-2018an zer mailatan egon zen	DBHn zenbat utzi dituen gainditu gabe
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

BI URTEKO CURRICULUM-ANIZTASUNEKO PROGRAMAKO BIGARREN KURTSORAKO
PROPOSATUTAKO IKASLEAK
(2017-2018 ikasturtean ebazpen bidez onartua)

PROGRAMAKO 2. KURTSOAN JARRAITZEN DUTEN IKASLEAK

	IZEN-ABIZENAK	Adina 2018-12-31n
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		

TALDEAN URTEBETEKO PROGRAMA BATEKIN SARTZEN DIREN IKASLEAK

	IZEN-ABIZENAK	Adina 18-12- 31n	Errepika- tutako maila	2017-18an zer mailatan egon zen	DBHn zenbat utzi dituen gairitu gabe
1					
2					
3					
4					
5					

_____, 2018ko _____aren ____a.

TITULARRA/ORDEZKARIA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

IV. ERANSKINA

BEHIN BETIKO ZERRENDA

(Bidali Ikuskaritzara eta eskualdeko berritzegunera 2018ko urriaren 31 baino lehen)

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria: Lurraldea:

IZEN-ABIZENAK	MAILA(1)	IRUZKINAK
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		

1). 2018-2019 ikasturtean zein mailatan matrikulatuta egongo den.

_____, 2018ko _____aren _____ a.

TITULARRA/ORDEZKARIA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

V. ERANSKINA

HEZKUNTZA BEREZI IREKIA

IKASLEEN ZERRENDA

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria: Lurraldea:

IZEN-ABIZENAK	Etap	Maila*
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		

* 2018-2019 ikasturtean zein mailatan matrikulatzen den.

_____, 2018ko _____aren ____ a.

TITULARRA/ORDEZKARIA